

I G N A S I L A B A S T I D A I J U A N

Creative Commons lizentziak Estatu espainiarrean

Duela pare bat urte gutxi batzuk ezagutzen zituzten Creative Commons lizentziak¹, baina gaur egun termino hori sarean libre dauden obra digitaletarako lizentzien estandarri

lotzen ari zaio, GNU (GPL, LGPL) proiektuko² lizentziak software libre-rako estandar bati lotzen zaizkion bezala. Azken urteotan, ekimen ugari agertu da kulturara heltzea eta legezko mekanismoen³ bitartez elkar banatzea errazteko eta, hala ere, badirudi software libreen lizentzien antzekoa den eskubideen lagapenaren sistema hori sarean eta beste bide batzuetan orokortzen ari dela. Euren edukiak Creative Commons-en sei lizentzia estandarretatik⁴ baten bidez jendearen esku jartzen dituzten web eta blog-ak geroz eta ugariagoak dira. Beste euskarri batzuetan, papera bezalako euskarri tradizionalagoetan, hedatzen diren obrek ere, lizentzia mota horiek auke-ratzen dituzte. Hala eta guztiz ere, oraindik zalantza eta nahasmen ugari dago lizentzia horiek benetan zer diren eta zertarako balio dutenari buruz. Artikulu honetan saiatuko naiz hori argitzen eta azaltzen nola iritsi ziren lizentzia horiek Estatu espainiarrera. Creative Commons 2001ean Estatu Batuetan jaio zen irabazizko asmorik gabeko korporazio bat da. Bere helburua orokorrean kulturara heltzea

errazteko mekanismo teknikoak eta legezkoak sustatzea da, edozein obraren hartu-eman eta hedapena errazteko. Proiektuaren buru dira, besteak beste, Lawrence Lessig, James Boyle, Eric Eldred edo Hal Abelson. Software librearen eremuan oinarrituz, 2002. urtearen amaieran, lizentzien proiektua sortu zen. Horrekin sortzailerik doan legezko hainbat testu eskaintzen zaizkie modu errazean euren obretako zenbait eskubide laga ditzaten. Baliteke hori izatea Creative Commons-en proiekturik ezagunena eta sarean nolabaiteko zalaparta eragin duena, “Eskubide guztiak erreserbatuak” zorrotzetik “Eskubide batzuk erreserbatuak” malgurako pausoa. A priori eskubideak lagatzea da, kasu askotan eskaerak eta galderak kentzen dituelarik, obra lizentziari lotzen zaion unetik erantzuna existitzen delako.

Creative Commons-ek, egilearen eskubideen zentzuzko erabilpenaren alde jotzen duenak, ez ditu kendu nahi, soilik nahi du egileak bere obren gaineko eskubide batzuk laga ahal izatea eta hori libreki egin ahal izatea, bitartekoen beharrik gabe. Creative Commons-en helburua kulturara heltzea erraztea da. Bitartekoak saihestu daitezke, egilearen eskubide batzuk a priori laga daitezke eskatzeko beharrik gabe, eta beraz, obren hedapena eta ahalik eta pertsona gehienekin banatu ahal izatea errazten da. Mota horretako lizentzien pean dauden obra kopurua azkar hazi da azken urte honetan eta ziur asko gehituz joango da hurrengo urteetan.

Creative Commons sistemaren arrakasta era ezberdinetan azal daiteke. Lehendabiziko arrazoia izan daiteke lizentziaren irakurketa hirukoitza⁵. Lizentziaren testu osoa badago, letra txikia duena, baina lehen irakurketa geruza bat ere badago, laburpena edo *deed* deritzona. Bertan hitz gutxitan eta ikono batzuen bidez modu errazean azaltzen da zein eskubide lagatzen diren eta zein baldintzetan. Hirugarren irakurketa-maila, makinaren konpresioa da, web orrian erantsi daitekeen kodea, lizentzia horietako bati atxikitako edukietara sartzea ahalbidetzen duena. Kode horri esker MozCC⁶ bezalako *plugins*-ak edo YahooCC⁷ bezalako bilatzaile espezifikokoak garatu dira. Egon litekeen beste azalpena lizentzien malgutasuna da. Guztiek baimentzen dute obrak kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea, baina hori egin ahal izateko baldintzen artean besteak beste ondokoak daude: erabilpen komertzialak baimentzea eta eratorritako obrak mugatzea. Creative Commons-en lizentziak erabiltzean egileak bere obra merkaturatu dezake eta era berean doan eskaini dezake sarean, hirugarrenei horren erabilpen komertziala mugatu diezaiekeelarik. Sistema horren asmoa ez da egilearen eskubideen erabilpena eta gehiegizko erabilpen arazo guztiak konpontzea, baizik eta orokorrean kulturara heltzeari buruz hausnarketa bat eragitea. Lizentzia horiek erabiltzeak ez du ziurtatzen egilearen eskubideak urratuko ez direnik, baina gutxienez obra errazago zabal dadin eta obra berriak sor daitezela, adibidez, erraztu dezake.

Lizentziak 21 jurisdikziotan eskuragarri daude.

Creative Commons lizentzien historia Estatu espainiarrean

Hasieratik Creative Commons-ek lizentziak estatu bakoitzeko egilearen eskubideei buruzko legeri ezberdinetara egokitzeko erabaki zuen. Horrela egile bakoitzak bere legeei hel diezaieke eta ez du kanpoko legeei loturik egon behar. Bartzelonako Unibertsitateak Creative Commons-ekin izan zuen lehen harremana 2003. urtearen hasieran izan zen, gure irakasleriaren irakaskuntza-materialak zabaltzeko sistema baten bila genbiltzanean. Mundu akademikoan bazen eta badago erreferente bat, eredu bat, irakaskuntza-materialak banatzeko, MIT-en (Massachusetts Institute of Technology) OpenCourseware⁸ delakoa. Lege-oharra kontsultatzean Creative Commons-ekin topo egin genuen eta eurekin harremanetan jarri ginen. Antzeko lizentzia bat eskatu genien gure edukiak liberatu ahal izateko baina horrez gain lizentziak Espainiako Estatura egokitzen lehenak izatea eskaini ziguten, jaiotzen ari zen iCommons proiektuaren esparruan. Internazionalizazio proiektu hori, 2003an hasitakoa, ez datza soilik lizentziak hainbat hizkuntzatarantz itzultzean baizik eta jurisdikzio ezberdinetara egokitzeko prozesu bat ere badakar berarekin. Jatorrizko legezko testuak



Lawrence Lessig, Copyfight II, Barcelona 2005

Estatu Batuetako legerian oinarritzen dira eta, beraz, jurisdikzio bakoitzean legezkoak izan daitezela paragrafo batzuk aldatu, kendu edo gehitu behar dira. Gaur egun, lizentziak 21 jurisdikziotan eskuragarri daude eta hamar proiektutik gora daude abian.

Lizentziak Espainiako legeriara egokitzeko prozesua pertsona askoren laguntzari esker izan zen: abokatuak, informatikariak, kazetariak, argitaratzaileak, itzultzaileak, ekintzaileak eta hainbat pertsona ezezagun; eurak gabe ezin izango genukeen 2004ko urriaren 1era iritsi; orduan lortu genuen lan guztia egungo Creative Commons-en web orrian eskuragarri dauden sei lizentzietan gauzatzea. Prozesua 2004ko otsailean hasi zen, web orrian lizentzietako baten lehen zirriborroa eseki zenean. Maiatzean aldatu beharra izan zen funtsezko aldaketak zituen lizentzien bertsio berri bat agertu zelako. Bufet Almeidaren laguntzari esker zirriborro berria eratu zen, irailean arte sarrera libreko zerrenda batean eztabaidatu zena⁹. 2004ko urriaren 1a, hasiera data gisa ezarri genuen, ez amaiera data gisa. Data horretatik

Deialdi publikoetan eduki libreak sortzea sustatzen edo laguntzen da.



Copyright II, Barcelona 2005

aurrera lizentziak hedatzearen proiektua hasi zen; ordutik aurrera egileek a priori eskubideak lagatzeko sistema horri heldu ahal izan zitzaizkion.

Creative Commons Espainiako Estatuan sartzeko proiektua hasi zenetik bi urtetik gora igaro ondoren, eta lizentziak ofizialki egokitu zirenetik bederatzi hilabete igaro ondoren, gure proiektuaren lehendabiziko balorazioa egin dezakegu. Egileen, sortzaileen, erakundeen, administrazioen eta abarren interesa handituz joan da. Gainera, testuak Espainiako Estatu edozein hizkuntzetan eskuratzeko interesa piztu da. Legeria bera da baina garrantzitsua da itzulpen ezberdinak izatea proiektua estatuko kultura guztietara gerturatzeko. Gaur egun, gaztelarazko eta katalanezko bertsioak daude, baina gutxi barru galizierazko eta euskarazko bertsioak agertuko dira; euren lizentzia ofizialei esker, Creative Commons-en web orrian eskuragarri izango dira lau hizkuntzetan.

Bestalde, egileek aldarte onez hartu dute proiektua eta geroz eta sortzaile gehiagok erabiltzen dute sistema hori euren obren ustiapen eskubide batzuk lagatzeko. Beste artista batzuk ere hori egin nahi izan dute, baina legeragozpenekin edo kontratuzko loturekin topo egin dute. Horietako batzuk egungo egileen eskubideen sisteman aldaketak eskatzen hasi dira egileak une oro bere obrarekin zer egin nahi duen erabakitzea errazteko. Museoak edo arte-zentroak bezalako erakunde artistikoak ere euren interesa agertu dute sistema horren gainean, batzuetan, artistek eurek hala eskatuta. Jada argitaratu dira kopia eta era librean bana daitezkeen edukiak dituzten katalogoak, eta hitzaldiak eta eztabaidak antolatu dira gaiaren inguruan.

Esparru akademikoan Espainiako unibertsitate askok pentsatu dute euren irakaskuntza-edukiak MIT-en pausuak

eta Bartzelonako Unibertsitatearen mugimendu txikiak jarraituz irekitzea. Zentzugabea deritzote euren irakasleen ezagutza itxeari eta, aldiz, uste dute hobe dela hori banatzea eta sarean zehar Creative Commons-en lizentzietako baten bidez hedatzea.

Administrazio publiko batzuk ere, software librea bezalako antzeko proiektuek sentsibilizaturik, euren babesa eman diote Creative Commons-i eta obren trukearen eta hedapenaren alde jokatu dute. Adibidez, deialdi publikoetan eduki libreak sortzea sustatzen edo laguntzen da. Eduki propioak liberratzen hasten dira edo kultura librearen aldeko talde edo kolektiboen ekimenak babesten dira.

Agian Espainiako Estatuan Creative Commons lizentziak ezartzearen alderdi garrantzitsuena egilearen eskubideen edo kulturara heltzearen gainean pizten ari den hausnarketa da. Gaur egungo negozio-ereduak zaharkitzen ari dira teknologiaren aurrerapenak direla eta. Eredu berriak bilatu behar dira eta ez da obretara heltzea mugatzen duten egungoak mantentzen saiatu behar. Batzutan, bitartekoak dira egileen izenean eskubideak gehiegi babesten dituztenak, kontuan hartu gabe agian egileek malgutasun handiagoa nahi luketela edo euren sorkuntzak hedatzeko formula berriagoak aukeratu nahi lituzketela.

Eztabaida irekia dago eta ziur asko kultura garaile irtengo dela, baita berarekin gozatu eta banatu nahi dugun guztiok ere. ❧

IGNASI LABASTIDA I JUAN Fisikan Lizentziatua Bartzelonako Unibertsitatean, 1994an eta Fisikan doktorea unibertsitate berean 2000n. Bere ikerketa-ildoak irudiezagutze optikoa eta holografia dira. Egun Bartzelonako Unibertsitateko Irakaskuntzaren Hobekuntza eta Berrikuntza Programan lanean dihardu, bertan aritu delarik 2001ean sortu zenetik. Dibulgazio-kezkak medio 1995ean Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia-Komunikazioko Graduondokoa egin zuen eta, Fisikako Kataluniako Elkarteko Batzarraren kide gisa, Fisikaren Munduko Urtearekin (2005) lotutako jarduerak antolatzen dihardu. Katalunian eta Espainian Creative Commons-ren proiektuaren buru da 2003. urtetik.

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

- 1 Creative Commons <http://creativecommons.org>
- 2 GNU proiektuaren lizentziak: <http://www.gnu.org/licenses/licenses.es.html>
- 3 Eduki libreetarako lizentzien gida: "A Guide To Open Content Licences", Lawrence Liang, http://pzwart.wdka.hro.nl/mdr/research/liang/open_content_guide
- 4 Lizentzia estandarrak ondokoak dira (Espainiako jurisdikzioan):
Atxikipena/Reconocimiento (by) <http://creativecommons.org/licenses/by/2.1/es/>
Reconocimiento-NoComercial (by-nc) <http://creativecommons.org/licenses/by-nc/2.1/es/>
Reconocimiento-CompartirIgual (by-sa) <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/2.1/es/>
Reconocimiento-SinObraDerivada (by-nd) <http://creativecommons.org/licenses/by-nd/2.1/es/>
Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual (by-nc-sa) <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.1/es/>
Reconocimiento-NoComercial-SinObra Derivada (by-nc-nd) <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.1/es/>
- 5 Onarpenaren lizentziarako irakurketa hirukoitzaren adibide bat. Laburpena edo *deed*-a: <http://creativecommons.org/licenses/by/2.1/es/deed.es>
Lege-testua: <http://creativecommons.org/licenses/by/2.1/es/legalcode.es>
Makinentzako kodea: http://creativecommons.org/licenses/by/2.1/es/work-html-popup?lang=es&jurisdiction=es&license_code=by
- 6 MozCC Mozilla-n oinarritutako nabigatzaileetarako luzapena da, Creative Commons-en lizentzia bati lotutako orri askeak identifikatzea ahalbidetzen duena <http://www.yergler.net/projects/mozcc/>
- 7 YahooCC Yahoo-ren bilatzaile bat da, Creative Commons-en lizentzia bati lotutako edukiak aurkitzen dituena <http://search.yahoo.com/cc>
- 8 Edukiak ondoko helbidean aurki daitezke: <http://ocw.mit.edu>
- 9 Garatu den prozesua ondoko zerrendan aurki daiteke: <http://lists.ibiblio.org/pipermail/cc-es/>

Batzutan, bitartekoak dira egileen izenean eskubideak gehiegi babesten dituztenak, kontuan hartu gabe agian egileek malgutasun handiagoa nahi luketela.